



ERAKUSKETA GIROTUAK 2014

Lehen Hezkuntza 1.zikloa (6- 8 urte):

- **BASOAN BARRENA (Pamiela/Kalandraka) →** Ipuin kontaketa
- **IGELA BELDURREZ DAGO (Elkar) →** Liburuaren ilustrazioak erakutsi eta beraiek nahi duten bezala ordenatu, horren arabera beraiek ipuina asmatu eta kontatu.
- **NIRE SEKRETUEN ZUHAITZA (Tarttalo) →** Ipuina gaineratik kontatu, orrialde jakin batzuetan bakarrik erreparatuz eta ondoren, bakoitzari orritxo bat banatu eta bertan beraien sekretu txiki bat idatzi edo margotu beharko dute (sekretu txikia bakarrik, handiak guretzako gordetzen ditugu eta). Ondoren, sekretu guztiak A3 tamainuko zuhaitzean itsatsiko ditugu eta esango diegu ikastetxe guztietako zuhaitz guztiak kutxa batean gordeko ditugula, beste ikastetxeetako sekretuekin batera, munduko beste sekretuekin batera...

Ipuina:

- 1.orria: Nire neure lorategian,
- 2.orria: sakon-sakonean,
- 3.orria: bada zuhaitz handi bat.
- 4.orria: Eta zuhaitz horretan,
- 5-6.orriak: nire sekretu guztiak: nire sekretu txikiak, nire sekretu handiak, mundu guztiak dakizkien sekretuak edota neuk asmatutako sekretuak.
- 7-8.orriak: Buruan sekretu bat dudanean, jira-biraka dabilena eta kezkatzen nauena, joaten naiz nire zuhaitzera eta isilka-misilka esaten diot nire sekretua
- 9-10.orriak: Nire sekretua azalpera irristatzen da, txoko bat topatzen du eta bertan geratzen da, eroso. Sekretu tristea, sekretu amestua, sekretu kezagarria, sekretu xelebrea, sekretu madari itxurakoa, sekretu tentel-tentela...
- 11.orria: Nire zuhaitzak ez du esango.
- 15.orria: Batzuetan, nire zuhaitzari esandako zenbait kontu gogoratzen ditudanean... gorritu egiten naiz.
- 23-24.orriak: Neure buruari galdetzen diot ea nire sekretuak ongi lotuta ote dauden.
- 31-32.orriak: Kaxa txiki batean gordetzen du, lurtean topatutako beste sekretuekin batera, edonondik etorritako beste sekretu batzuekin, mundo osoko haurren sekretu horiekin.
- 37.orria: Sarritan pentsatzen dut horretan. Baina ez diot inortxori esaten.